

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### Hasierako onarpena ematea ordenantzen aldaketari

Udalbatzak, 2015eko azaroaren 3an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea zerga hauek arautzen dituzten ordenantzen aldaketari: ondasun higiezinaren gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta ezkontza zibilen prezio publikoa.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak xedatutakoarekin bat etorritik, espedientea hogeita hamar egun baliodunez jarriko da jendaurrean udal bulegoetan, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzakete. Erabakiaren aurka erreklamaziorik egon ezean, eta espedienteak jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren, erabakia behin betikoa izango da.

Santikurutze Kanpezu, 2015eko azaroaren 4a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRATXASKO*